

SECCIÓN AMENA



FERIYARA



IRU LAPURRAK

Baserritar bat zijoan egun batian feriyara asto bat eta auntz bat salduzko asmoakin.

Auntzak zeraman zintzillik bere lepotik chincherri bat.

Iru lapurrek ikusi zuten, eta beretzako batek esan zuen:—Gizon orri berak uste ez duela auntza ebatsi bear diot.

Bestiak dio orduan:—Bada gero nik lapurtuko diot astua.

Bi gauz'oyek egiten ez dirade gaitzak—esaten du irugarrenak—nik soñean daramazkien arropak kenduko dizkat.

Arrimatu zan lenengo lapurra auntzagana, eta kendurik lepuan zeukan chincherriya, lotu zuen astoaren isatsean, eta eraman zuen auntza.

Nola aditzen baitzuen chincherri soñua, gizona etzan erreparatu alik'eta kamiyan buelta batera allegatu zan aman auntza falta zuela, eta orduan abiatu zan topatzera, albazuen.

Agertu zitzayon bigarren lapurra, eta galdetu zion zeren billa zebillen.

Gure gizon'onak erantzun zion auntz bat arrapatu ziotela.

Ezta denbora asko ikusi detala nik,—dio lapurrak—, baso ortan topatu det gizon bat auntz batekin dijoala: oraindik arrapatu zenezake baldin pizkor joaten bazera atzetik: astoari kontu egingo diot nik zu jira bitartean, nai badezu.

Sinisturik gure gizonak lapurraren esana, laja zion astoa, eta sartu zan presaka basoan bere auntza topatuko zuen pozian.

Basora sartu zanian, lapurra ezkutatu zan astoarekin kamiyotik.

Etsi zuenian gizonak auntzaren aztarrenik aterako etzuela, buelta-tu zan kamiyora, eta etzuen ikusi, ez gizonik eta ez astorik.

Negar aldi bat egiñ ta abiatu zan gure gizon doakabea bere bidean, eta bat-batetan arkitu zuen beste gizon bat, zeña, aintzira baren erz-tzian jarri ta, zeguen negarrez urera begira.

Gure gizon onak galdetu zion zer gertatzen ote zitzayon ala ego-teko, eta besteak kontatu zion orduan nola eman zioten saku bat urrez betia eramateko bazterreko urira: zijoala bidean, nekatu zala, sakuak pisu aundiya zuen meriyoz, eta oso errenditurik jarri zala etzanta ain-tzira aren iškiñian sakua burukitzat arturik; ala zeguela luak artu zuela, eta dudarik gabe, jir'enbat embat eman zuenian, erori zitziola sakua urera.

Gizonak galdetu zion orduan zergatik etzan urian sartzen sakua ateratzeko.

Ikaratzen naizelako, eta igeri ez dakitelako,—erantzun zion lapu-rrak—, jondo pozik emango nizkake ogei urrezko diru saku ori ortik ateratzen lukenari!

Bestiak itz abek aditu zituenian, ezin zan kabitu pozez, eta pensa-tu zuen:

—Nonbait gure Jaungoikoak, urrikaldurik nitzaz, nai dizkit eman nere astoa eta auntzaren artu bear nituen diruak.

Erantzi zan altzuen lenena eta sartu zan putzuan, bañan egiñ zituen alegiñ guziyak alferrik izandu ziran, sakurik etzuen arkitu. Etzi zue-nian, atera zan legorrera, eta..... ordurako lapurra aienatu zan andik, eta erropa guziyak ere falta ziran.

Iru lapurrak zituzten kunplitu beren itzak.

ENRIKE ELIZECHEA.

Errenterian.

